

Helburuak*

1. **Gatazka** ahaztuei buruz hausnartzea.
2. **Gatazkak** konpontzeko moduak pertsonengan duen eraginei buruz hausnartzea.
3. **Nazioarteko komunitateak** indarkeria armatuko egoeretan arriskuan dagoen biztanleria zibila babesteko betebeharra eta erantzukizuna duela jakitea.

Jardueren eskema*

1. **Bidaia agentzia**
2. **Taldeka ikertzen**
3. **Goazen zinemara**

Jarduera eta orientazio didaktikoen garapena*

1. Bidaia agentzia

Jarduera hasteko, irakasleak zenbait bidaiaren eskaintza erakusten duen fitxa bana emango die ikasleei. Fitxaren edukia irakurtzeko eskatuko die, eta kolektiboki aztertzen hasiko dira, bai denen artean, bai talde txikitara banatuta. Horretarako, laguntza gisa, galdera hauek egin diezazkieke irakasleak:

- Bidaia agentzia horretako zerk harritu zaitu gehien? Zer dago agentziaren eskaintzek islatzen duten ironiaren atzean?
- Kokatu mapa batean agentziaren eskaintzetako herrialdeak. Deskribatutako indarkeriazko egoeretatik, esan zeintzuk ez zenituen ezagutzen.
- Gatazka horiek guztiak askotarikoak dira, eta haietako batzuk besteak baino agerikoagoak dira. Zein da haien ezaugarri komuna? Eta zertan dira desberdinak?
- Izan al duzu aipatzen diren gatazketako bat hurbiletik ezagutzeko aukera?

Ikasleek publizitateak iradoki dienarekin lotutako galderei erantzundakoan, irakasleak esan dezake, abiapuntu gisa, gatazka horietako batzuk turismo potentzial handiko eskualdeetan gertatzen direla; esaterako, Espainia da munduko herrialderik turistikoenetako bat, Sudan Egiptotik gertu dago, eta Haiti Karibearen dago.

Halaber, esan daiteke, nahiz eta begien bistako jarduera izan ez, zenbait bidaia agentziek arriskuko bidaiak eskaintzen dituztela eta bezero batzuek gatazka armatuko egoerak hurbil bizitzearren ordaintzen dutela. Kontraesankorra izan arren, pertsona batzuk etengabeko indarkeriazko egoeretan bizi dira eta ez daukate egoera horietatik ihes egiterik, eta beste batzuek, berriz, esperientzia hori “une batez” bizitzeko ordaintzen dute. Ikasleek kontraesan horri buruz hausnartu beharko dute.

Denen artean, ezagutzen dituzten indarkeriazko egoerak eta zeharo ezezagunak zaizkienak bereizi behar dituzte. Erakutsi egoera horien guztien ezaugarri komuna indarkeria dela; indarkeriaz konpontzen diren gatazka egoerak daude haietan guztietan. Azaldu gatazkek ez dutela zertan izan beti negatiboak; haiek konpontzeko aukeratutako moduaren arabera izango dira.

Azken kasuari buruzko hausnarketak ikasleengandik hurbilago dauden gatazken inguruko eztabaidari jarraitzeko bidea eman dezake; besteak beste, ikastetxean bertan gertatzen diren gatazkei buruz eztabaida dezakete.

2. Taldeka ikertzen

Interesgarria izango litzateke, jarduera hau lantzeko, saio bat baino gehiago erabiltzea. Izan ere, kasu bakoitza sakonago aztertzeke aukera emango digu horrek. Horretarako, ikasleak taldetan banatzea proposatzen dugu, eta talde bakoitzari kasu bat ematea. Taldeek ikerketa lana egin beharko dute, eta ondoren, ikaskideen aurrean ondorioztatutakoa azaldu.

Talde bakoitzak iragarki bakoitzean aipatzen diren indarkeria motak –gerren ondoriozkoak– identifikatu beharko dituzte, bai eta indarkeria eragiten duten kausak aztertu eta indarkeriak kasu bakoitzean dituen ondorioak deskribatu ere. Horrez gain, interesgarria izango litzateke talde bakoitzak egoeren konponbideak ematea. Honako esteka hauek ikerketa lanari ekiteko abiapuntua izan daitezke:

www.armasbajocontrol.org

www.intermonoxfam.org

www.elmundo.es/documentos/2003/04/guerras_olvidadas

www.enredate.org/enredate/actualidad/historico/la_vuelta_al_mundo_en_30_guerras

Horrez gain, hedabideetan azaltzen diren albisteak azter daitezke talde lanean. Horri esker, hedabideek fitxetako indarkeriazko kasuez arduratzen ote diren ikusteko eta zer gatazka aipatzen diren eta zein ez eta zergatik aztertzeke aukera izango dute ikasleek. Esate baterako, interesgarria izango litzateke hedabideek Darfurreko edo Kongoko gatazka armatuek aipatzen ote duten aztertzea, haiek mapa batean kokatzea eta haiei buruzko informazioa bilatzea, bai eta nazioarteko komunitatearen arreta erakartzea lortzen duten beste gatazka armatu batzuekin alderatzea ere. Horrek gatazka ahaztuei eta biztanleriak babesgabe daudenean esku hartu beharrari edo babesteko erantzukizunari buruzko eztabaidari ekiteko aukera emango digu. Gatazka horien garrantzi mediatikoa Iraki buruzko albiste kopuru handiarekin aldera daiteke.

Behin informazioa bilduta, ikasgelan azaldu beharko dute.

Bigarren saioan, ikasleengandik hurbilen dagoen indarkeria estrukturala azter dezakete; hala nola, bandek eragindakoa eta genero indarkeria. Horretarako, horrelako kasuei buruzko informazioa bila dezakete hedabideetan.

3. Goazen zinemara

www.edualter.org web orrian, filmen zerrenda bat aurkituko duzue. Horrez gain, haien ustiapen didaktikorako fitxak ere daude, filma ikusi ondoren bideoforumara egin dezazuen.